


1994ko abenduak 30

259. zenb.


PRESS

ARRASATE



Txikilandia
Jolaserako
egunak


Zure zerbitzu informatikoa



- Ekipo informatikoen salmenta, mantenimendu eta konponketa.
- Sistema informatikoen aholkularitza.
- Material informatikoa (Disketteak, inpresoraren zintak...).
- Sare informatikoak.
- Salmenta punturako terminala. (T.P.V.).

AIDE

Informatika Basabe poligonoa, FO-9. 20550 ARETXABALETA

 771372

✓ **Auto ia berrietan aukera paregabea, tailerrean daudenak bukatu arte.**

✓ **200 eta 15.000 Km bitarteko bigarren eskuko autoak garantia osoarekin.**

CITROËN Tall. Chapime, S. Coop. Ltda.

Chapime Tailerrak

Araba etorbidea, z/g. Tfnoak: 79 06 57 eta 79 45 22. ARRASATE

 **CITROËN**

Euskal enigma

Aurrerapen teknologikoaren erritmoa hain da bizia, herrialde, eskualde eta kontinenteak galduta daude aguro harrapatu eta ezartzen ez badute.

Baina aldentuta egoteko era asko dago, eta euren egoerarengatik sare teknologiko aurreratu eta puntako baten beharrezko artikulazioan parte hartzeko egoeran dauden enprekin bat egin eta elkarlanean jarduteko ere era asko dago.

Eta ustez alperrikakoa den eginkizun batean joaten zaigu denbora, ageri ez den bakea eta aldegiten ari zaigun aukera historikoa, modernitatearen trenari lotzearen premia predikatzen.

Hemendik ihes egiten duena besoak zabalik hartzen dute beste leku batzuetan eta gure Estatuak bertakoak diren komunitate batzuk eskuak igurtzitzen dituzte izkutuan, euren gerrekin aukera galtzen ari diren euskaldunen ibilera eskasak direla eta. Baina gaitz guztiek dute bere alde ona eta Espainiako Estatuak Autonomi Elkarte batzuk prime-ran daude.

Hurbil hurbiletik dakit. Komunitate bateko goi mailako zuzendari batek honela adierazten zuen bere kezka: Eziezazkiguzue zuen nahasteak esporta eta horrekin aski dugu.

Euskal Herriak kultura, tradizio industrial eta maila guztietako heziketa sare ona ditu abantaila, bere jakinduria eta profesionaltasunez bertako nahiz kanpoko edozein ekimen aberasteko gai, baina tentsio eta segurutasun politikorik ezaren eta elkarbizitza demokratikoaren horma jotzen du.

Zilegi diren balore eta erreibindikazioengatik, herri honen memoria historikoan seguruenik konprimituta egongo diren balore eta erreibindikazioengatik "amore eman" dugu; baina horiek lortzeko erarik argiena


bide finalista, gerrarena, idazle handi batek "politika egiteko beste era bat" bezala definitzen zuena ote den galdetzea ere zilegi da. Politika egiteko beste era bat, baina garaipen azkarrik gabea, herriak suntsitzeko erarik odoltsu eta alperrikakoa.

Bide egokia- latzagoa eta motelagoa iruditzen zaiguna - eszeptikoak eta etsaiak komentitzea da eta horiek iraun egingo duten arren, gehiengoa ideario eta programekin erakartzea da erronka, egin beharreko lana. Metodo drastikoak alboratu eta era lasaiago eta toleranteagoak erditzea, gizarte aztoratua baretu eta denborarekin herri hau bakerako bidean jartzea.

Bakearekin dena da posible, eta bakerik gabe ez dago kezarako eta arrautza eta oiloarena bezalako eztabaidetarako baino lekurik. Zirkulo biziotsu batean sarturik gaude: denon artean kontrako egin dugun inguru-

nearen loturarik gabe, atzera duintasunaren ikurra erakusteko, bere gaitasun kompetitiboaren hariak mugitzeko aukera izan nahi

duen herri oso baten etorkizuna jokoan jartzen da pul-tso latz honetan.



Oraingoz,

errealitatea setatia da eta indarkeriaren zuhaitz suizidari loturik gaude, baina zanpatzen gaituen eta aurrerapenaren eta modernitate material, moral eta elkarbizitzakoari heltzeko ilusioa moztzen dizkigun egoera honetatik irteteko kolektiboki gai izango garen esperantzarik ezin dugu galdu.

JESUS LARRAÑAGA

GATZAGAN,
ERDI ERDIAN...

ZUHAITZ
jatetxea




Memesa
79 42 22



Aldizkari honek
Arrasateko Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Arantzazu Loidi. Kazetariak: Ixaro Zubillaga, Maider Egues, Maria Agirre. Publizitatea: Jasone Mendizabal eta Ikerne Altube (77 08 15). Administrazioa: Agurtzane Gaintzarain eta Itaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). Maketazioa: Txos Azurmendi. Kolaboratzaileak: Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Eiorza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karme Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Mariartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. Banaketa arduraduna: Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. Legedordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.


Azaleko argazkia: Urri Urizar.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

MARGOAK JUANMA

Margoak, paperak,
gotelea e.a.

Agerre kalea, 5 3. ezk.
Tfnoa: 79 69 17



LOGOPEDIA

ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

I R T A B E R N A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

••••• FAGOR eta natura ezin uztartu?

Gure kooperatibek arazo ekologiko larriak sortzen dituztela eztabaida ezina da nire ustez. Inongo lotsarik gabe ur pozoindiak botatzen dira, atmosfera kutsatzen da, kontrolik gabeko zabortegeiak erabiltzen ditugu, izugarriko zaratak entzuten dira gure lantokietan... baina, aipatzen dudan hau garrantzitsua izan arren, ez da dena. Fagor kooperatiba taldeak sortzen dituen arazo ekologikoei aurre egiteko enpresa bakoitzaren prozesu osoa arakatu behar da: erabiltzen diren lehengaiak, produktua lantzeko aukeratutako teknologiak duen eragina, azken produktuak zenbateraino betetzen dituen arau ekologikoak, daraman manufaktura-erazioa, eta, bezeroengana heltzeko behar den garraio motak naturarengan duen eragina.

Gizakiok gure izakerearen nondik-norakoa aztertzen dugunean gure arteko harremanak sortzen dituzten arazoez jabetzen gara soil-soilik. Gure enpresak dituen arazoak aipatzen ditugunean gure saldata, lan-orduak, barne funtzionamenduaren demokrazia, edo eta esploatauntza gutxitzeko neurriak hartzean kokatzen ditugu, inoiz ere ez da kontutan hartzen enpresa horrek naturarekiko duen eragina. Gauzak beste modu batean egin nahi badira behar beharrezkotzat jotzen dut arazoak osotasun naturalean hartzea:

gure arteko harremanak ez ezik, ingurugiroa ere kontutan hartuta.

Gauden egoeratik bestelako egoera batera heltzeko pauso konkretuak eman beharko liriateke. Lehenengo eta behin, Kontseilu Sozialeko partaideentzat heziketa programa antolatuko beharko da, edukien artean, besteak beste, ekologia eta ingurugiroari buruzko ideia orokorrak, ingurugiroari buruzko legedia, ingurugiro auditoriak...; eta, hondakin, ur, energia... eta antzerakoei buruzko oinarriko ideiak izan beharko litzuzke.

Bigarren, ingurugiro auditoriak enpresa guztietan gutxienez urtero egiteko derrigortasuna legez-tatu beharko litzateke, ateratzen diren emaitzak publikoki azalduz.

Hirugarren, ingurugiro arazoak aztertu eta konprobatzeko teknikari eta ordezkari sozialek osatutako talde bat Fagor mailan hedatu. Beronen zeregina ekoizpen prozesuak sortzen dituen arazo ekologikoak arakatzeko izango litzateke. Gure azken produktuek beldurrik gabe etiketa ekologikoa eraman dezaten zein aldaketa egin behar diren ere eztabaidatu beharko luke.

MIKEL OLABE
FAGORREKO LANGILEA

Oharra

Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatze-aita learen izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzitzen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontutan izan identifikatu barik datorren gutunik ez dela argitaratuko.

Oharra

Datorren astean ez dugu ARRASATE PRESS-ik argitaratuko. Oporren ondoren, urtarilaren 13an izango gara berriz zuekin.

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretako fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta


Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

ALTAMIRA KLINIKA

Mikrotxip-aren
betebeharreko
kanpaina
abenduaren 31ra arte

J. L. Iñarra, 24 Behea
Tfnoa: 79 74 89

Zer moduz joan zaizu 1.994a?



**Jose Ignacio Uriarte
Langilea
(46 urte)**

Niri behintzat ondo joan zait urtea. Urte hau nahiko normala izan da.



**Leire Azkarate
Ikaslea
(18 urte)**

Niri nahiko ondo joan zait, hasieran nituen asmoak ondo irten zaizkit eta. Urte alai izan da.



**Alicia Romo
Etxekoandrea
(42 urte)**

Urte normala izan da niretzat, baina albisteei dago-kenez, berri txarrak izan ditugula uste dut. Gerra asko izan denez, urte gatazkatsua izan dugu.



**Jon Ugalde
Jubilatua
(71 urte)**

Niretako urte ona izan da. Beti bezala, egunero Udalaiztera joan naiz. Urte bat gehiago bizkarrean!



**Maribi Davila
Langilea
(27 urte)**

Ondo, nahiko esperientzia onak izan ditut urtean zehar. Orokorrean, berriz, aurten iruzur asko izan dela iruditzen zait.



**Igor Ibarondo
Langilea
(21 urte)**

Nahiko ondo baina niretzat nahiko urte normala izan da. Lagunekin irten, ondo pasatu.... gauza berezirik ez dut egin.



**Yolanda Mateos
Zahorreko langilea
(26 urte)**

Urte ona izan da. Lana aurkitu dut eta horregatik joan zait ondo.



**Jose Ramon Arrieta
Copreciko langilea
(51 urte)**


Oso ona. Lanean gauzak ondo joan dira, osasuna ere ona, familia gustora, jaiak ere ondo. Baina aurten ikusi dudanez, oraindik lotsagabe asko dago munduan.

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABALETA

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit79 53 00
 Iguatorialdea79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko)77 03 46
77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
79 78 44
79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrogo liburutegia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 30**
 Egunez eta gauzez: Español. Iturriotz.
- Larunbata 31**
 Egunez eta gauzez: Corcuera. Musakola
- Igandea 1**
 Egunez eta gauzez: Guallar. Bergara.
 Gaueko 10.00ak aerte: Irizar. Erguin.
- Astelehena 2**
 Egunez eta gauzez: Amezua. Sta. Marina.
- Asteartea 3**
 Egunez eta gauzez: Ruiz. Maala.
- Asteazkena 4**
 Egunez eta gauzez: Morales. San Andres.
- Osteguna 5**
 Egunez eta gauzez: Azkoaga. Ferrerías.

30 OSTIRALA

ZINEA
 "Maité" 7etan eta 10etan.

FAUNA TXIKI BAT BERTSO BERRIETAN
 Aitor eta Jon Sarasua bertsotan eta Juan Luis Lekunberri pianoan. Bergarako Zabalotegi aretoan gaueko 10.30etan. Jardunek antolatuta.

LANPOSTUA BILATZEKO TEKNIKAK

Urtarrileko astearte eta ostegun guztietan 9.30etatik 11.30etara. Nekane Plazaolak emango du ikastaroa. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak antolatuta. Izenemateko epea zabalik dago: Informazio gehiagotarako eta matrikula egin ahal izateko Sta Teresa kaleko 12ra joan zaitzekete edo 790459 zenbakira dei egin.

3. ADINEKOEN JARDUNALDIAK

Jubilatuen etxeek Udalaren laguntzaz hitzaldi-etzabaida saio eta jardunaldi batzuk antolatu dituzte urtariletik aurrera egiteko. Arrasateko Adinekoen Kultur Programa izango da. Urtarrilaren 17an Programaren aurkezpena egingo da.

ANALISI ETA BALANTZE IKASTAROA

Urtarrilaren 9tik aurrera, astelehen, astearte eta asteazkenetan. Goizeko 6etatik 8etara, 90 orduko iraupena. Antolatzailea CCOO sindikatua.

31 LARUNBATA


ZINEA
 "Maité" 5etan eta 7.30etan.

ARRASATE MUSIKALEKO BANDAREN AURKEZPENA
 Herriko plazan eguerdiko 1.30etan. 12.30etan akademiatik aterako da Banda eta kalejira egingo dute plaza-raino.

BIZAR-ZURI ATXABALTAN
 Bizar-zuri Aretxabaletako kale-etan arratsaldeko 6.30etan, Ortzadar taldearen laguntzarekin.

KONTZERTUA

Urtarrilaren 6an, Virginia eta Patricia Esparzak txelo eta bibolin emanaldia eskainiko dute, Arturo Goikoetxea pianujolearekin batera. Amaia antzokian, arratsaldeko 7etan. Sarre-ra: bazkideentzat doan, gainontzekoentzat 500 pta.



URTE BERRI EGUNEAN UDALAITZERA

Besaidek antolatuta urtarrilaren 1ean Udalaiztera Mendi irteera.

1 IGANDEA

ZINEA
 "Maité" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

MENDI IRTEERA
 Udalaiztera mendi irteera Besaidek antolatuta.



ERAKUSKETA

Maltzaga-Urbina erakusketa ikusteko azken eguna urtarilaren 1ean izango da.

DAVID ARZAMENDIRI OMENALDIA

Urtarrilaren 15ean David Arzamendiri omenaldia egingo zaio Parrokiako koruak antolatuta. Omenaldira joateko txartelak salgai daude Hire liburudendan. Azken eguna urtarrilaren 12an izango da.

2 ASTELEHENA

ZINEA

"Maité" 7etan eta 9.30etan.

TXIKILANDIA

Urtarrilaren 2, 3, 4, eta 5ean Txikilandia Musakolako kiroledegian. Orduetgia: goizez 11etatik 2etara eta arratsalde 4etatik 8etara. Autobusak Aretxabaleta eta Eskoriatatik eta Arrasateko auzoetan ere autobusak ibiliko dira. Prezioa: egun osoa 350 pta, lau egunetarako bonoak 900 pta. Tailer desberdinak, jolasak eta sorpresa ugari Txikilandian.

3 ASTEARTEA

ZINEA

"Maité" 7etan eta 9.30etan.

TXIKILANDIA

Kiroledegian, goizez 11etatik 2etara eta arratsalde 4etatik 8etara. Egund osoko sarrera 350 pta, lau eguneko bonoa 900 pta.

ERAKUSKETA

Katekesiko ikasleek errege kabalgotarako egin dituzten argazkien erakusketa San Frantziskoko lokaletan. Urtarrilaren 3, 4 eta 5ean erakusketa zabalik arratsaldeko 5etatik 7etara. Errege egunean 12etatik 2etara.

4 ASTEAZKENA

TXIKILANDIA

Musakolako kiroledegian, goizez 11etatik 2etara, arratsalde 4etatik 8etara. Egund osoko sarrera 350 pta, lau eguneko bonoa 900 pta.

5 OSTEGUNA

TXIKILANDIA

Musakolako kiroledegian, goizez 11etatik 2etara, arratsalde 4etatik 8etara. Egund osoko sarrera 350 pta, lau eguneko bonoa 900 pta.

ERREGE KABALGATA

Errege kabalgotara Arrasaten, arratsaldeko 7etan. Aboratik irtengo du kabalgotatik eta zenbait kale zeharkatu ondoren Monterronen, Jaio-tza jarrita egongo den tokian, bukatuko da.

ERREGE KABALGATA

Errege kabalgotara Atxabaltan, Ortzadar taldearen laguntzarekin, arratsaldeko 6.30etan.

EUSKARA IKASTEKO IKASTAROA

Urtarrilaren 9tik aurrera, astelehen, astearte eta asteazkenetan. Orduetgia: goizeko 8etatik 9.30etara. 100 orduko iraupena. Antolatzailea CCOO sindikatua. Dohainik.



TAKOLO, PIRRUTX ETA PORROTX

Urtarrilaren 7an Takolo, Pirrutex eta Porrotx pailazoaren emanaldia arratsaldeko 4etan eta 6etan, Amaia antzokian Txatxilipurdik antolatuta. Sarrera: 400 pta.

DIAKONOTZEA

Urtarrilaren 7an Ramon Mari Elkoro Gabilondo apaiza diakonatuko dute Aretxabaletako parrokian, arratsaldeko 7etan. Jose Maria Setien Gotzaia bertan izango da.

MENDI FEDERATU KARNETA

Besaide Mendizale elkarteak 1995ko Mendi Federatu Txartelen tramitazioa egiten hasi da.

Orduetgia: asteartean arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara.



ERAKUSKETA

"Made in Arrasate, Museo industrial sortzeko bidean". Urtarrilaren 23ra arte egongo da zabalik Monterronen. Orduetgia: egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jai egunetan 12etatik 2etara eta arratsalde 6etatik 8ak arte.

URAZPIKO GIMNASIA

Urtarrilaren 3 eta 4ean Urazpiko Gimnasiaren erakusketa egongo da ikusgai Aretxabaletako Kiroletxean. Orduetgia: goizez 10.30etatik ordu batera arte eta arratsalde 4.30etatik 5ak arte. Eguna eta ordua aukeratzeko 796461 zenbakira dei egin eta Pedrogatik galdetu. Sarrera eta gimnasia saioa dohainik izango dira.

(Eroskiri buruz) "Merkeago saltzeko lehiakideak baino merkeago erosi behar da, eta hala ere gehiago irabazi; horretarako hornitzailearen aurrean argudioak edukitzeko modua handiago izatea da. Bezeroari produktu bera prezio merkeagoan saltzen siatzen dena desagertu egingo da. Euskal Herrian, Estatuan bezala, prozesua martxan dago, apur bat atzeratuta gabiltza baina adierazle guztien arabera, urte gutxi barru Europako biltze tasetara iritsiko gara". (...)

"Ez dugu Euskal Herrian helmuga zehatzik. Hazkunde handiena atzerrian egiten ari gara, eta bestetik, bertan ere gero eta lehiakide berri gehiago agertzen ari dira. Guzti honekin oraindik kopuru hori apur bat handituko dugula espero liteke. Dena da, txikia izango da".

Agustin Markaide, Eroskiko arduradunak **ARGIA**

"Ordainketa aldeei jarri zitzaizen balio "fundamentalista", eta oraindik ere mcc-ren oinarri nagusietan egoki den bezala aitortzen zaiona, gogortasuna galtzen ari da eta gaur egungo interpretazioa gizarteko aldaketekin bat dator. Gutxienez baina hiru aldiz handiagoa zen ordainketaren menpe izatea ez da gauza bera 1956an eta orain, 1994an. (...)

Adiskide kooperatibistok, gaur egun solidaritate handia dago lansarrietan. Norbaitek besterik pentsatuko balu, gustatuko litzaidake hori zergatik pentsatzen duen jakitea: lanpostu gehiago sor dadin topa egin nahi dut nik, gugandik oso hurbil enpresak itxi dizkietelako jendea kalean ikustea bezalako ikuskizun mingarriak konpon daitezen".

Jose M^o Ormaetxea

lanhide

Trenbide zaharra berreskuratuko dela dirudi, ezta?

Maltzaga-Urbina ardatza-ren inguruan Debasak jarri duen erakusketan izan gara eta bertan adierazten denez, badirudi asmo hori dagoela. Horren arabera, trenbide zaharraren ibilbidean zehar oinez edo bizikletaz joateko aukera izango da nahiz eta zati batzuk hiri barrukoak izango diren. Bestalde, horrekin lotuta, aurkeztu berri den Egitamu Orokorrean ere, hirigune osoan zehar oinezko eta txirindularientzako bideak egiteko nahia ageri da.



Patxi Montero

Trenbidea berreskuratzearen aldeko taldeko partaidea

Gure ustez, guzti horrek erakusten du urtetan marginatua egon den aldarrikapena kontutan izaten hasi direla eta hori, ez da gutxi. Baina trenbidea berreskuratzearen alde lanean gabiltzanon ustez, gure lana ez da hemen bukatzen. Erakundetan ideia sartzeari lortu dugu baina hori egingo dela ziur ikusi arte eta aurrerantzean egingo diren bideetan ere gauza bera egin dezatela eskatzeko, guk lanean jarraituko dugu. Horrez gain, bidegorria egingo bada proiektuak aurkeztuko dira eta gu horien gainean egongo gara, egokiak diren ziurtatzeko eta erakundeei hori egiteko laguntza eman behar bazaie, laguntasun hori eskeintzeko. Egitamu Orokorrekin ere hori egiten ari gara, ezarri duten ibilbidea aztertu eta behar izanez gero, iradokizunen bat ere aurkeztuko genuke.

Lehen esan dudana bezala, gure eskariak harrera ona izan du baina ezin gara horretan geratu eta zer egin badagoenez, elkarteak eratzeko bidean gaude. Elkarteak sortzeko asmoa orain dela hila-bete batzuk hartu genuen eta orain horretan ari gara. Gure inguruan trenbidea berreskuratuko dela ziurtatzen ahaleginduko da elkarteak eta ondoren, eredia zabalduko genuke Euskal Herrian zehar.



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Argiztapena
- * Instalazioak
- * Bobinaketak
- * Automatismoak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

Istripua

Astearte iluntzean istripua izan zuen mondrauetar batek, Aramaixoko Suña auzorako bidean. Ilunkarako 8.30etan izan zen istripua, autoa bidetik irten eta pinudian barrena abiatu zenean. Auto barruan zegoen laguna, Joseba O. U. 29 urteko arrasatearra, gau guztian egon zen autoan goizean aurkitu zuten arte. Autotik kanpo baina hanka auto azpian zuen zaurituak eta saihets batzuk apurru zituzenez, Donostiako ospitalera eraman zuten.

Txoronpio, Txoronpia eta Olentzero

Urtero moduan gabon egunean, umeek Olentzerori idatzi zizkieten kartak batzen ibili ziren Txoronpio eta Txoronpia. Bi laguntzaileek 900 gutun baino gehiago jaso zuten. Arratsaldean, berriz, Olentzero etorri zen Arrasatera umeak agurtzera eta gutunak jasotzera. Herriko plazara heldu zenerako, jende multzo handia batu zen plazan, suaren inguruan.



Gabonetako merkadiloa

Gutxigora behera 120.000 pta lortu zituzten Orkatz Skaut Taldeak eta Gaztetxeak, elkarlanean antolatu zuten merkadiloaz. Aurrez erabaki zuten bezala, ateratako dirua erdibana egingo dute eta gaztetxeak, beren zatia Hies Ekimena taldeari emango diote. Orkatz taldeak, berriz, ume eta gazteentzat ekintzak antolatzen jarraitzeko gordeko du dirua.

Merkadiloa astebetetz izan zen zabalik eta zenbait gauza saldu barik geratu denez, beharbada datorren astean berriz ere jarri egingo dute merkadiloa.

Debasaren erakusketa

Debasaren erakusketa zaintzen dauden arduradunek esan digutenez, asten honetan jende asko hurbildu da Lau Bidera. Santamas egunean eta gabon egunean batez ere, erakusketa jende askok bisitatu du baina iradokizunei dagokienez, orain arte behintzat ez ei da halakorik egin. Zapatu goizean, bestalde, autopista egitearen aurka daudenek orri informatiboak banatu zizkieten Lau Bidera hurbildu zirenei.

Ibai Arteren salaketa

Santamas jaietan Maala kaleko denden ateetan merkatariek jarri zituzten zuhaixka batzuk hondatu egin zituzten ezezagun batzuk. Aurreko astebukaeran ere, Elkorodendako apaingarriak kendu egin zituzten eta herriko plazan botata agertu ziren. Ibai Artekoek ekintza horiek salatu egin zituzten eta erdikalean zainketa handiagoa jartzea ere eskatu zuten.

JAIOTZAK

- Maialen Buendia Escolar. 15ean.
- Asier Uroz Geijo. 17an.
- Aitziber Otxoa Agirreurreta. 16an.
- Ander Goikolea Landaluze. 13an.
- Antonio Estrella Gomez. 16an.
- Andoni Beitia Leturia. 17an.
- Daniel Ramos Zubia. 20an.
- Irene Lasaga Arana. 24an.
- Adrian Ugalde Igartua. 23an.

HILDAKOAK

- Benita Bengoa Agiriano. 18an. 86 urte.
- Cresencia Zubillaga Zubia. 18an. 68 urte.
- Ildefonso Rodriguez Hierro. 20an. 90 urte.
- Silvestre Euba Ituarte. 22an. 74 urte.
- Lucia Conde Amozarrain. 23an. 86 urte.
- Manuel Azkarate Iburguren. 22an. 88 urte.

VE ECUADOR
Bidaiak
Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan. Ez galdu aukera!
 Kontzeziño, 2
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 14 06

YOSU HERMIK
VENTANAS AISLANTES

Kalitate gorena leihotetan.
LANTEGIA ETA ERAKUSKETA
 Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



Kapirixok bere kezka azaldu du berrikuntza proiektuaz.

Harrera ona Parrokia berritzeko eskabideek

Erantzun ona izan du San Juan Bataiatzailearen parrokia berritzeko herritarren artean egin den eskabidea, eginkizun horretan diharduen batzordeak dituen lehen datuen arabera. Gabon jaiak pasatakoan jakingo da zenbat herritarrek eman duten baietza, zenbatek ezetza eta guztira zenbat diru batuko den. Herritar askok ez du hileru kopuru bat emateko konpromezurik hartu nahi izan eta nahiago izan du kolpetik kopuru bat ematea. Toki batzuetan hala ere, Santamainan eta Aldagainen adibidez, ez da oraindik eskari orririk banatu. Urbarriko zati baten gainera ez dituzte banatuko, auzo horretan eliza berria egiteko asmoa dagoenez, han bizi direnei eliza egiteko dirua eskatuko zaie eta.

Bitartean, aste honetako plenoan onartzekoa zen parrokia berritzeko 2. komenioa eta Udalean zein Diputazioan eginda dago dagoeneko 95eko aurrekontuetan eginkizun horretarako kopurua izenda dadin eskabidea. Parrokia berritzeko batzordearen esanetan, bost urteko epean banatu nahi da erakundeetatik dirulaguntza lortzea, eta urtez urtez erakunde bakoitzarekin negoziatu eta agindutako diru kopurua eskuratzeko egindako lanen kontuak zuritu beharko dira.

Obraren ondorengo atala Erdiko kalera begira dagoen fatxada amaitzea izango da, kale hori hainbat lasterren libre uztea eskatu du eta Udalak. Baimena lortzen denetik, lau hilabeteren buruan bukatuta izatea espe-

ro dute lanen arduradunek.

Zahar-berritzearen nondik norakoei buruz, bestalde, bere kezka adierazi die Kapirixo Elkarteak Parrokiako ordezkariak. Elkarte horrek ez du begi onez ikusi jatorrizko estrukturalako mutur bat kentzeko proiektua eta elizaren estalkia berritzeko orduan lehengo egurra kendu eta burdinezko estrukturalak sartu izana. Horrekin batera, elizpea edo portikoa berriz ere jartzea eskatu du Kapirixok, mendeetan zehar egindako apoteek historikoki baliotsuak eta bere funtzioa duelako.

Batzordeak, bere aldetik, "portiko duin bat" egiteko konpromezua harturik du, baina lan horri ez zaio obra guztia bukatu arte ekingo.

BESTE DIRU ESKARI BAT

Urriaren erdialdean, erretaula berritzeko dirua batzen hasi ziren frantziskotarrak. Diru eskaria egiteko, parrokia horretako 650 laguni bidali zieten gutuna eta horrez gain, parrokian utzi zuten hainbat eskari orri. Gutuna jaso zuten gehienek donatibo bat ematea erabaki dute, hogeitamarren bat izan dira kuota ordaintzea erabaki dutenak. Erretaula konpontzea 15 milioi inguru kostako da eta erdia Foru Aldundiak ordainduko du. Udalarik ere dirulaguntza eskatzeko asmoa dago eta datorren urteko aurrekontuetan diru kopuru bat luzatzea eskatuko zaio.

Udal Plenoa

94ko azken plenoa zen biltzekoa ostiral honetan. Hona hemen, udalbatza horretan aztertzeak zirenen gai batzuen aipamena.

Artega baserria, Udalaren jabetzakoa, erosteko asmoz eroslerik agertu ez denez, momentuz bertan behera utzi nahi da saltzeko asmoa eta aurrerago erabakiko da zer egin. Bestalde, Kobate sektorearen urbanizazio proiektua behin-betiko ontzat emateko zen ostiraleko plenoan. Kobate kantera dagoen tokia orain ez da urbanizagarria baina arau subsidiarioak aldatu egin dira eta orain, zoru hori urbanizagarri bihurtuko da. Era horretan, kanterara joaten diren kamioiak auzotik pasa ez daitezkeen, bidea egiteko asmoa dago eta ur kanalizazioa ere egin nahi da. Hirigintzako gaiekin jarraituz, Zaldibarko parkearen urbanizazio lanak egiteko obrak ere adjudikatu behar zituen udalbatzak. 22.482.983. ptako aurrekontua ezarri da Zaldibar egokitzeke.

Mankomunitatearen proposamena ere bazen aztergai. Mankomunitateak lurralde antolamendurako zerbitzua, hau da, eskualdeko proiektuen jarraipena egingo duen eta eskualdeko interesak kontutan izanik ekimenak bultzatuko dituen zerbitzua sortu nahi du. Mankomunitateko beste herriei bezala, Arrasatekoari ere ideia horri onarpena ematea eta ordezkari bat izendatzea eskatu zaio. Bukatzeko, Legargaingo gaia ere mahaigainean izateko zen. Toki horretan arau subsidiarioen aldeketa batzuk egin dira Diputazioak hala eskatuta.

Badator Txikilandia, bailarako gaztetxoen jolastokia

Urteroko zitari huts egin gabe, Txikilandiaren 6. edizioa egingo da urtarrilaren 2tik 5era arte Musakolako Kiroldegian. Bailarako gaztetxoek ondo pasatzeko eta jolas egiteko aukera izango dute kiroldegian jarriko diren honako aparailu hauekin: kantxako aparailuak, windsurfeko ohola, eskalatzeko mendia, pilota etxea, giza boloak, laberintoa, motordun patineteak, puzgarriak... Aukera horietaz gain, irratia, mozorro edo ileapaindegia bezalako tailerretan, zertxobait ikasteko aukera izango da eta nobedade moduan, 25 abesti baino gehiago edukiko dituen karaokea ere izango dela aipatu behar da. Txikilandiako dinamizazioaz eta antolakuntzaz Txatxilipurdi arduratuko da eta horretarako, ekintzak aurrera eramango dituzten 31 moni-




Txatxilipurdi arduratuko da Txikilandiako dinamizazioaz.

tore izendatu ditu elkarteak. 3 urtetik 14 urte bitarteko gazteentzako izango den parkea antolatzeko, 1.392.000 pta eman ditu Arrasateko Udalak. Horrez gain, herriko

etxe komertzialek egingo duten publizitateaz eta umeek ordaindu beharko duten sarreraz finantzatuko da Txikilandia. Egun bateko sarrera 350 pta kostako da eta 4 egu-

netarako bonoa 900 (gurasoek ez dute ezer ordaindu beharko). Txikilandia, goizeko 11etatik ordubietara eta arratsaldeko 4etatik 8etara izango da zabalik.

Autobusak Txikilandiarako




Txatxilipurdik autobusa antolatu du, bailarako eta herriko gaztetxoak Musakolako Kiroldegira hurbil daitezen. Eskoriatzako erdikaldeko geltokitik, goizeko 10.30etan aterako da autobusa eta arratsaldetan, berriz, 15.30etan.

Aretxabaletako umeek ere erdikaldeko geltokian hartu ahal izango dute autobusa. Goizez, 10.40etan eta arratsaldez, 15.40etan. Eskoriatza eta Aretxabaletakoentzat itzulera, eguerdiko 13.30etan eta arratsaldeko 19.30etan izango da.

Arrasaten bizi arren Musakolako Kiroldegia urruti gertzen zaienek ere Txikilandiara autobusez joateko aukera izan-

go dute: 10.50etan, 11.35 eta 12.20etan San Viator Txikitik aterako da autobusa, 11.00etan, 11.45 eta 12.20etan Uribe auzotik eta 11.10etan, 11.55 eta 12.40etan Seberotik. Arratsaldetan: 15.50etan, 16.35, 17.20, 18.05 eta 18.50etan San Viator Txikitik, 16.00, 16.45, 17.30, 18.15 eta 19.00etan Uribe auzotik eta 16.10etan, 16.55, 17.40, 18.25 eta 19.10etan Seberotik. Herriko umeek, etxera itzultzeko ere izango dituzte autobusak eta ordutegia, geltokietan jarriko duten panelean azalduko da. Eskoriatza eta Aretxabaletatik etorriko direnek, 100 pta ordaindu beharko dute eta Arrasatekoek 50.

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

URRATS
AHOLKULARITZA
 GARIBAI, 3
 Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

PRESS
ARRASATE
 Harpidetzak:
77 08 15

Mendi
taberna
MENDI DA ZURE ETXEA
 Maalako Arrabala, 4
 Tfnoa: 79 20 54



Astlehenean lehen harria jarri zuten, Iñaki Azkunak eta Eki Galdosek besteak beste.

96aren bukaerarako itxuraldatu egingo da Eskualde Ospitalea

Eraikin berria egiten hasi dira, orain ospitalaren parean dagoen aparkalekuan eta 96aren bukaera alderako bukatuta izango dela espero da. Hala ere, solairu bat bukatu bezain laster solairu horretan lanean hasteko asmoa dago. Eraikuntzaz arduratuko den arkitektuaren berbetan, itxura moderno izango du eraikinak eta era horretan, inguruneak beste itxura bat hartuko du.

Eraikinak bi soto eta hiru solairu izango ditu eta oraingo ospitaleaz eta anbulategiaz lotuta izango da. Sotoetan almagaren jarriko dira eta lehen eta bigarren solairuetan oheak, guztira 72. Oraingo ospitalea, berriz,

beste behar batzuetarako eta egun bateko ospitalizazioa behar duten gaisoentzat egokituko da. Alvaro Sainz de Viteriren, ospitaleko gerentearen esanetan, gela bakoitzean bainugela izango denez, etorkizuneko ospitalea askoz ere erosoagoa izango da.

Ospital berria eraikitzea 500 milioi inguru kostako da eta lurzorua, berriz, Arrasateko Udalak eman du pezeta baten truke. Lurzorua ematea udal plenoak onartu zuen baina HBko zinegotziek aurka bozkatu zuten. HBkoen ustez, beste eraikin bat egitea partxea jartzea da eta gainera, bere kokapena ere aztertu egin beharko litzateke.

Erretzeari uzteko

Erretzeari uzteko gida praktikoa erosiko dio Udalak EDEX enpresari. Gida horiek eskoletan eta beste toki batzutan banatuko dira, jendea erretzearen gainean kontzientziatzeko helburuaz. 90.000 pta kostako zaio Udalari erosketa hori egitea.

Liburu eta diska azoka

Aurten 600.000 pta jaso dute Txatxilipurdikoek, urtero antolatzen den liburu eta diska azokan. Liburuei dagokienez, gehienbat haur eta gazte literaturako liburuak saldu dira. Musikan, berriz, modan dauden taldeen diskak eta pailazoez ateratako abesti bildumak. Abenduaren 21etik 24 bitartean izan zen zabalik azoka eta hainbat lagunez gain, Arrasateko eskoletako eta euskaltegi-tako irakasleak saltzaile lanetan aritu ziren. Erosleentzat lagungarria izango zela eta, Eskoriatzako Irakasle Eskolak haur eta gazte literaturako liburu gomendagarrien zerrenda ere atera zuen.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



**Santamas eskarapate
lehiaketarako sariak Santamas
egunean eman ziren jakitera
eta aurtengo irabazlea Onandia**

**gozotegia izan da. Troko dendak
jaso du bigarren saria eta lpek
dendak hirugarrena. Bestalde,
Tamayo papel dendak**



**Gipuzkoako eskaparate
lehiaketako lehen saria jaso du
jaiotzen sailean. Zorionak
guztioi!**

Josu Antxia eta Amaia Aizpurua atxabaltarrak azaroaren
Sean ezkondu ziren Atxabaltako San Blas ermitan.
Bazkaria Gure-Ametsan izan zuten eta ezkonbidaian
Guatemalan egon dira. Zorionak, bikote!



Tel : Tienda: 216-156
Casa: 216-277

ONGI ETORRIAK

Om Hari Shrestha
Nagusia
G 2-327 Taleju Area
Makhan Tole, Kathmandu, Nepal

Tibetar Thankak ikusi edo lagun prezioan
erosi nahi badituzu. Ez ahuztu
etorri nere dendara.

ESKERRAK ETORTZEAGATIK

Begira zer etorri zaigun Nepal mendizale euskaldun alderdi
aidetik! Bisita tarjeta da eta eus- horretara joaten denez, euska-
karaz dago idatzita. Tarjeta kirol raz ateratzea erabaki dute; ideia
denda batekoa da. Horrenbeste ona benetan!

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99



beatriz
oinetakoak eta
poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

**ARRASATE
HOTELA**

Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

Epelde



Nork ez du **Fray Rufino** ezagutzen? Bolibartarra izatez, baina bete-beteko mondrauetarra dagoeneko. Gabon Zahar egunean beteko ditu 50 urte Arrasatera etorri zela. 50 urte San Frantziskoko frailei jaten ematen! Eta beste hainbeste herritarrak alaitzen. Zorionak bihotzez, Rufino!

Argazkiko arrasatearrek Urte Berri On opa nahi dizuete arrasatear guztioi. Santamasetan argazkia ateratzeko elkartu eta lerro hauek erabili dituzte euren nahia herrira zabaltzeko. Goian: **Begoña, Pepelu, Rakel** eta **Lurdés**. Behean: **Gemma** eta **Maribel**.



Juan Jose Ansoategi eta **Rosa Aranzabal** arrasatearrek zilarrezko eztaiak bete zituzten abenduan 6an. Ezkonduta daramatzaten 25 urteak ospatzeko Kuban, Mexiko eta Venezuelan izan dira bidaian. Senar-emazteekin batera Mikel Etxaburu eta Arantza Jauregi Oñatiko bikotea joan da, hauek ere zilarrezko eztaiak bete dituzte. Zorionak!

Arreta
haundiko
sukaldea

Garagartza auzoa

UGARAN
jatetxea

Tfnoa: 79 76 58

Giro
abegikorra

ARRASATE

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.


Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



WERU[®]
Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

● *Pedro Mendieta* Max Center, Aretxabaletatik Estatura

Komunikabideetan azkenaldian asko aitatzen den izena da Max Center. MCC taldeko ekimena da eta Estatu guztian zehar azalera handiko proiektuak promozionatzen dira Aretxabaletatik. Pedro Mendieta da gestioaz arduratzen den Lainter S.A. enpresaren zuzendari orokorra.

— Zer da Max Center proiektua?

— Proiektu inmobiliario bat da, merkatal zentru batzuen esplotazioan oinarritua. Kooperatibaren pentsio fondoei epe luzera errentagarritasuna ateratzeko arlo hori interesagarri ikusi zen, gaur egun produktu izarra delako. Finantziarioa Lagun Aroren bidetik dator %5aren inguruan jarrita. Kopuru horrekin egitura finantzieroa kontrolatu egiten da, eta FILO izeneko enpresaren bidez aurrera eramaten da Max Center. Merkatal zentro sare bat egitea da helburua, Estatu mailan: Lehengo Barakaldokoa, bigarrena Santandereen egin da, eta hirugarrena Ospitaleten.

Proiektua nahiko ondo doa, koiuntura latzean hasi arren, horrek berorrek bi eragin izan ditu eta: inbertsioari buruz, ekonomia handiak egin dira, baina bestalde, inbertsioa lokaletan egiten da eta lokal horiek alokatu egiten dira eta alokairuetan gaur

egun zaila da nahi den maila lortzea; baina ia %100ean gabiltza, lan neketsua den arren. Badirudi koiuntura positibo batean sartzea goazela eta hori horrela bada, beste giro batean sartuko gara.

— Antolakuntza guztia hemendik eramaten da?

— Max Center sozietate gestorearen misioa proiektua bere osotasunean aurrera eramatea da: estudioak egin, zer inbertsio egin behar den, zer alokairu mota izan dezakegun, errentagarritasun estudioa egin eta erabakia hartzeko proposamena. Zentralizatuta dagoena prozesu guzti hori da, baina gero zentru bakoitzean gerentzia bat jartzen da talde osoarekin eta hango gestio guztia bertan eramaten da, hemengo kontrol eta laguntzarekin.

— Gure inguru honetan hedadura zabaleko proiekturik jartzeko asmorik egon ez arren, zer efektu du guzti horrek Kooperatiba Taldearentzat?

— Azken batean, promotore izateak Taldeari kontratuak egiteko aukera ematen digu; horrela izan da eta horrela izango da. Barakaldoko azpiegiturako gauza asko taldeko enpresek egin dituzte, eta taldearentzat eragina badauka horrek. Gure inbertsioarekin eta Eroskirenarekin 93ean 3 edo 4 mila milioi inguruan ibiliko zen.



Eroskirentzat berarentzat ere bost mila milioko liberazioa izan duela esan nahi du horrek. Talde mailan, sektore industrialean bezala distribuziokoan ere, Max Center proiektuak nahiko eragin positiboa izan du.

— Enpresa munduan hain sarturik, ez duzu politikara itzultzeko asmorik?

— Ez; politikan bi arlo oso ezberdinak daude: militantzia eta herriaren aurrean egiten den gestioa. Bigarrena betirako ahaztuta daukadala uste dut, urte mordo bat bete dut hor eta belaunaldi berriei tokia utzi behar zaie. Horrek ez du esan nahi politikatik kanpo izango naizenik; azkenean bakoitzak bere pentsakera dauka eta nik EAn jarraituko dut.

— Alkatetzatik kanpo, zelan ikusten duzu Aretxabaleta?

— Kanpoan nabilenez, ez

dut asko ikusten eta hori da nire arazoa.

Nire kezka nagusia langabezia da, eta hor hutsuna gogorra ikusten dut. Kooperatibak daudelako edo, erakundeek ere bailara honi ez diote arreta handirik jarritzen eta egia esan, kezkatuta nago hemengo etorkizunarekin, ez dut aurrerapausorik ikusten. Hainbat eta hainbat gazte, oso ondo gertatuta daudenak, ez dira promotoreak, eta gure lider eta balore berriek bailaratik irten egiten dute eta gure bailarako dinamika pobreagoa izatea ekartzen du horrek. Enpresa txiki berriak sortzeko joerarik ez dago, gazteengan ardura hori sartzen ez dugu jakin.

Bestela, dinamika politikoa eta administratiboa oso barrutik ezagutzen dudan honetan, Ezkerraldekoak edo Santanderrekoak ez du zerikusirik hemengo garbitasunarekin. Gure bailarako Udaltxeetako arduradun eta gestoreengan ez dago jokaera zikinik. Linboa da hau, beste leku batzuk ezagututa, ez dauka zer ikusirik.

● **“Bailarako gazteek enpresak sortzeko ekimenik ez izateak arduratu egiten nau”**



Arrasateko lantegi guztietako langileei egin zitzaizen azterketa dispensarioa zabaldu zeneran.

Aintzinako Dispentsario Antituberkulosoaren gorabeherak

Maider Egües

“Norte Express” egunkariko orri zahar batean, Arrasaten 1946. urtean zabaldu zen Dispensario Antituberkulosoari buruzko artikulu interesgarri bat aurkitu dugu. Gaur egungo arrasatear askok gogoan du Yeregui medikua eta dispensario hori. Orduko oroitzapen batzuk gogora ekarri nahi izan ditugu.

Gaur egun ARKOren egoitza den eraikuntza zahar honek historia aberatsa du

benetan, eta historia horretako zatitxo bat, Begoña Aranburuk, Arrasaten emagin izandakoak, 1977. urtean argitaratzen zen “Norte Express” egunkariako orri zati zahar bat gurea ekarri duenean aurkitu dugu. J. de Leniz izeneko kazetari batek, Frantziskotarren etxeari itsatsita dagoen eraikuntza honetan 1946. urtean zabaldu zen Dispensario Antituberkulosoari buruz artikulu interesgarri bat idatzi zuen. Orri zati zahar horri esker, urte haietan D. Calixto Yeregui, Salvador Bravok, Roman Balanzateguik eta Sor Agustinak tuberkulosiak jotako

alde Arrasateko dispentsarioan egin zuten lana ezagutu ahal izan dugu.

TUBERKULOSIARI AURRE EGITEA

2. Mundu Gerratearen ostean tuberkulosi izurritea izugarri hedatu zen probintzian, Gipuzkoan, eta gaixotasunak jotako lagun asko zen herrian. Arrasateko bizi-lagunak kezkatuta, herriko hainbat enpresen diru-laguntzari esker, 1946. urteko ekainaren 25ean Arrasateko Industri Zerbitzu Antituberkuloso zabaldu zen, garai hartan, S. A. I. izenaz ezaguna. Ospitalea Arrasateko bizila-

gunentzat eta Arrasateko lantegietan lan egiten zuten langileentzako zen soilik, hau da, kanpoko jendeak ez zuen ospitale honetan ingratszeko aukerarik.

1946an dispentsarioa zabaldu zenean, D. Calixto Yeregui, Salvador Bravo eta Roman Balanzategi medikuak, hasi ziren lanean Sor Agustina lekaima mertzedariarekin batera. Arrasaten tuberkulosi kasu asko zegoen urte haietan eta dispentsario antituberkulosoan jarri ziren 15 oheei esker, 387 gaixo sendatu ahal izan ziren zerbitzuak iraun zuen 31 urteetan zehar.

ORDUKO KONTUAK

Gaixoaren egonaldia 20 pezeta balio zuen. Horietako 10, patronatoko juntak ordaintzen zituen, beste 5 pezeta gaixoaren hermandadeak eta gainontzeko dirua gaixoak berak jarri behar izaten zuen. Dispentsarioak 15 ohe besterik ez zituen eta Yeregui medikuak artikuluan esaten duenez, gaixo asko kanpora bialdu behar izaten zuten leku faltagatik: Gertuen geratzen zena Billabona inguruan zegoena zen.

Hogeita hamaika urte haieran artxibo sendoa eratu zuten dispentsarioan. Arxibo horretan honako datuok agertzen ziren:

- 19.414 fitxa
- 387 historial
- 211 elektro
- 2.753 erradiografia
- 387 prozesu
- 199 ikerketa kardiologiko

Aipatutako egunkarian, Yeregui medikuak ondo azaltzen du tuberkulosi gaixoei eramaten zen sendatze prozesua: Lehenengo familitatik atera eta isolatu egiten

zen gaixoa: 24 edo 48 orduko epearen ondoren, enfermerian ingresatzen zuten. Ingresatu ondorengo egunean, familiakoek pijama ekartzen zioten. Gaixoa ohean zegoela, bere etxea desinfektatu eta berarekin bizi ziren senitarteko guztiei azterketa egiten zitzairen. Gaixoen sendatze prozesua luzea izaten zen: 6 hilabetetik urtebetera egoten ziren dispentsarioan; dena dela, guztiz sendatzeko urte batzuk behar izan zituzten kasuak ere izan ziren.

DIZIPLINA ZORROTZA

Yeregui medikuak "Norte Express" egunkariari adierazten zionez, dispentsarioan zegoen diziplina erabatekoa zen, "Diziplinaren kontuarekin oso zorrotzak izan gara. Gaixoei ez zuten ezereen beharrik izaten, oso ondo jaten zuten eta gure atentzioa oso ona zen, baina era berean, diziplina handia genuen ospitalean: tabako eta alkoholik sartu ez zedin kontu handia izaten genuen. Esaten dizut, oso ondo atendituta egoten ziren gaixoak, mertzedariek mimo handiz tra-

tatzen zituzten eta. Dispentsarioa herri guztiak ezagutu du eta 31 urte hauetan ez dugu kexa bat bera ere jaso". Jose Luis Iñarra parrokoak ere lan handia egin zuen ospitale honetan, Yeregui medikuaren hitzetan, "Don Jose Luis dispentsarioko arima izan da. 31 urte hauetan zehar, egun guzti guztietan etorri da ospitalera".

Diziplina zorrotza bazen ere, bertan sendatutako arrasatearrek maitasun handi gogoratzen zuten ospitalean jasotako atentzioa eta Don Calixto medikua. J. de Leniz kazetariak herritar bati medikuari buruz galdetu zionean, hauek izan ziren bere hitzak: "Begira, Don Calixto dispentsarioko mediku-zuzendaria izan da eta jende asko sendatu du, ni horien artean. Baina niretzat, Don Calixto, mediku bat baino, aita bat izan da. Eta esaten dizudan hau beste askok ere esango dizu. Sinestu iezadazu; ez dago gure alde egin duen guztia azaltzeko modurik, eta egotekotan, nik ez dakit nola egin."

Gaur egun ere arrasatear askok gogoratzen dute Don

Calixto maitasun eta errespetu handiz.

Dispentsarioan, tuberkulosiak jotako bi emakumek haur bana erditu zutela ere aipatu behar da.

31 URTE ETA GERO

31 urte eta gero, 1977. urtean, Arrasateko Dispentsario antituberkulosiak atek itxi egin zituen. Tuberkulosi kasuak gutxitu zirelako eta kasiera batean finkatutako helburuak bete zirelako, enpresa kolaboratzaileek, udalbatzak eta medikuek dispentsarioa ixtea erabaki zuten. Ordutik aurrera sortu ziren tuberkulosi kasuak Eskualde Ospitalean eta espezialitateko anbulategian tratatu ziren. Calixto Yeregui, Salvador Bravo eta Roman Balanzategui medikuek bizitza asko salbatu zuten eta herrian egin dako lanari esker, sekula ezabatuko ez den oroitzapena utzi zuten Arrasaten.

Dispentsarioak atek itxi zituenean, eraikuntza zahar honetako paretak San Frantzisko Xabier ikastolako eta Ospitale Santuko egoitza bihurtu ziren.



Don Calixto Yeregui medikua, Don Salvador Bravo medikua eta Sor Agustina lekaime mertzedaria.

Dispentsarioan jarri ziren 15 oheei esker, 387 gaixo sendatu ahal izan ziren zerbitzuak iraun zuen 31 urteetan zehar.

"Gasteiz hirian" Urbina-Maltzaga

PENALTIAK

● **Santamas egunean aizkolarien txapelketa eta harrijasotzaileen erakusketa ikusteko aukera izan genuen Zaldibarko frontoian. Aizkolarien txapelketa bizia bezain lehia tsua izan zen azken unerarte eta merezimendu osoz nagusitu zen Donato Larretxea. 15 aizkorakadako aldea besterik ez zion atera irabazleak bigarrenari, Jose Mari Olasagastiri. Egin beharrekoa Angel Arrospeidek bukatu zuen 3. tokian eta Florentzio Nazabal izan zen azkena. Harrijasotzaileek erakusketa egin zuten eta horretarako Iñaki Perurena aita eta semea izan genituen. Iñaki Perrurenak birritan jaso zuen 200 kiloko zilindroa, Arrasateko bolo-harria beste bi bider altxa zuen eta 100 kiloko harribolari 15 buelta eman zizkion lepoan: 15 korbata egin zituen. Semeak, Iñaki txikik, oster, 38 kiloko bolari bi jasoaldi eman zizkion, 55 kiloko zilindroa 3 bider jaso zuen eta harribolarekin 5 korbata egin zituen.**

● **Tenis txapelketako finalak jokatu dira aste-buru honetan. Jose Caballero eta Teri Cid aurrez aurre izan genituen zapatuan eta egin beharreko lana bukatu eta gero, Jose Caballero izan zen irabazle: lehen set-ean 6-4 irabazi zuen eta bigarren 6-2. Teri Cid bigarren geratu zen.**

Urbina-Maltzaga saskibaloitaldeak "Gasteiz hiria" txapelketa jokatu du urtarriaren 3an. 3x1 formulan jokatu da txapelketa eta Urbina-Maltzaga, Bilbao Patronato eta Caja Vital taldeek hartuko dute parte. Urbina Maltzaga eta Bilbao Patronatok Eba Ligan jokatzen dute eta Caja Vitalek, berriz, 2. mailan. Arratsaldeko 7etan Bilbao Patronatok Urbina Maltzaga taldearen kontra neurtuko ditu indarrak. 7ak laurden gutxian, Caja Vital eta Urbina-Maltzaga izango ditugu aurrez aurre. 8.30etan, oster, Caja Vitalek eta Bilbao Patronatok elkarren kontra jokatu dute eta hauxe izango da txapelketako azken neurketa. Beharrezko partiduak jokatu eta gero, puntu gehien duen taldeak irabaziko du. Txapelketa Gasteizko Iparralde kiroldegian jokatu da.



Urbina Maltzaga taldeak Gasteiz Hiria txapelketan hartuko du parte.

Bestalde, urtarriaren 7an Arrasateko Urbina-Maltzaga taldeak Askatuak taldearen kontra Derbi garrantzitsua jokatu duela ekarri behar dizuegu gogora. Donostiarrak arrasatearrak baino hobeto kokatuta daude sailkapenean baina horiek datuak besterik ez dira, hobeak diren kantxan era-


kutsi beharko dute eta. Partidura joateko autobusak antolatu dituzte, saskibaloitaldeko ordezkariak. Interesatuok saskibaloitaldeko lokalera deitu beharko duzue, 799180 zenbakira. Lehenbailehen izena ematea komeni den arren, urtarriaren 6a arte egongo da horretarako aukera.

Urtezahar egunean Mondra eta Urola aurrez aurre Atxabalpen

Mondra 3. mailako taldeak Urolaren kontra 94ko azken neurketa jokatu du larunbatean, Atxabalpen. Neurketa arratsaldeko 3.30etan hasiko da. Bi taldeak nola dauden sailkatuta ikusi ondoren, Mondrak 94a garaipenarekin buka dezakeela pentsa daiteke. Izan ere, Urola 16. tokian dago sailkatua 13 puntu eta 3 negatiborekin.

Mondra, oster, 10.ean dago, 17 puntu eta positibo bakanak. Etxeko taldeak, dagoneko, 16 neurketa jokatu ditu: 6 irabazi egin ditu, 5 berdindu eta 5 galdu. Golei dagokienez, 17 sartu ditu Mondrak eta 18 sartu dizkiote. Mondrak 17. jardunaldia irabaziko balu 2 puntu gehiago igoko litzuke sailkapenean. Larunbateko nor-

gehiagoka jokatu eta gero, Mondrari 2 neurketa besterik ez zaizkio faltako lehen buelta bukatzeko. Urtarrilaren 8an Touring eta Mondrak neurtuko dituzte indarrak, eta lehen bueltako azken partidua Atxabalpen jokatu du Mondrak Elgoibarren kontra urtarriaren 15ean. Partidu biak irabazteko modukoak dira.



95

Arrasate Aretxabaleta Eskoriatza Leintz-Gatzaga

Zerbitzu eta komertzioen gida.

Ballaran gal ez zaitez.

ALMENeko 250 guraso eta irakasle elkarlanean

Hau ez da, ez, egunero entzuten dena, halajaina!

Nondik nora sortu den? zerk izan ote duen halako kopurua biltzeko indarra?

Arrazoia bistan da; gure seme-alaba eta ikasleengan, gazteengan orokorrean somatutako zenbait hutsunek, hainbat jarrerak sortu digun kezka ondoz, euren pentsamoldea eta bizi duten egoera ezagutzeko eta nola aurre egin jakiteko nahia besterik ez da.

Zergatik? Haurra txiki-txikia denetik, ikastola kideok, hau da, guraso eta irakasleok,

- maiztasunez elkartzen,
- haurrekin jokatzeko irizpideak denon artean asmatzen eta

- gure kezka elkarri aipatzen saiatzen bagara indarrak elkarrengana batuz, gero gaztea izango den haur horrengatik asko egin dezakegula uste osoa dugulako. Konbentzimendu horrek eraman gaitu Heziketa Prebentiboaren beharra argi ikustera.

Horrela, bada, Javier Elzoren soziologo taldeak ikerketa lan bat burutu berri du ALMENeko 12 urtetatik



Almeneko irakasle eta gurasoak ekintza-plana prestatzen hasiko dira.

18 urte bitarteko ia 1000 ikaslerekin, besteak beste familiarekiko harremanak, zaletasunak, jai egunak iragategi ohiturak, alkoholaren kontsumoa, etorkizunari buruzko ustea etabar aditzera ematen direlarik.

Ikerketaren emaitzak jaso ditugu eta orain 250 bat guraso azaldu dute datuok ondo aztertu eta premia gehien duten puntuak aukeratuz, urtarilean lanean hasteko asmoa.

Horren ondorioz, epe

erdirako sortuko litzatekeen ekintza planak, gure ustez, honelako beharko luke izan:

Familia-giroaren hobekuntza eta gure seme-alabekin eguneroko harremanetan isladatuko dena batetik, eta elkartasunak ematen duen indarrak, herri mailan, erakundeetan eta egokitzen den tokietan eragitera eta aukerak zabaltzera bideratutako bestetik.

Ez dezagun ahaztu, Nortasun orekatua duen pertsona,

afektiboki ondo, gustora, aurkitzen den haur eta gaztea heldutasunez joango dela mundua deskubritzen, patxadan bizitzaren urratsak ematen.

Guri dagokigu, beraz, guraso eta irakasle bezala haurrari bide hori egiten laguntzea. Horra hor gure helburua.

MAIA ETXEBERRIA
ALMENeko ORIENTAZIO
DEPARTAMENDUKO
ARDURADUNA

San Martin Osasundegia

DERMATOLOGIA
UNITATEA

Garciandia Doktorea

PATOLOGIA DIGESTIBOEN
UNITATEA

Otzua Doktorea

OBSTETRIZIA ETA
GINEKOLOGIA UNITATEA
 Serrano Doktorea

PSIKOLOGIA
UNITATEA

J.R. Fernandez

ZIRURGIA UNITATEA
 J.R. Fernandez

Ramon María Lili, 2

Tfnoa: 76 59 39/72

Faxa: 76 25 72

LORAMENDIN



Aukera zabala

- FORRO POLARRAK
- TXAMARRAK
- SKIRAKO PRAKAK
- BUZOAK
- OSAGARRIAK

"Prestatu zure ski ekipoa gure tailerrean"

OPEL 

TIGRA



OPEL TIGRA: Martxa handiko autoa gidatzea dibertigarriagoa izan dadin.

Eta orain, injinerutza alemanak ECOTEC 1.4 eta 1.6l. motorra jarri dio, zure bizitzaren erritmoa jarrai dezan.

Araba etorbidea, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 05 86

TAKOLO AUTOAK

“Los Pichones” Maketaren arrakasta dastatzen

“Los Pichones” taldeak maketa atera berri du: “Beroarena Kenduta”. Arrakasta handia izan du punk, pop eta musika klasikoko taldeetatik datozen musikari hauek grabatu duten maketak. Iñaki Bengoarekin taldeko bateriarekin, solasalditxo bat izan dugu.

— Zeintzu izan ziren “Los pichones” taldearen lehen urratsak?

— Duela 5 urte ARRASATE PRESSEK eman zuen jaialdia baino zertxobait lehenago hasi ziren jotzen. Montoya, Txema, Yul eta Iñakik osatzen zuten taldea eta jaialdi hartan parte hartu zuten lehen aldiz. Gero, Montoyak, bateriak, taldea utzi egin zuen eta Txerrak, Jul-en anaia sartu zen. Kontzertu pare bat eman zuten eta Txerra bizi izatera Gasteiz joan zenez, taldea utzi egin zuen. Urtebetera edo, deitu egin zidaten eta batera jotzen hasi nintzen. Serioago hasi ginen orduan, entsaiatzeko lokal bat aurkitu genuen eta hainbat abesti sortu genuen. Azkenean, grabaketa estudioa hemen dagoenez eta hori aprobetxatu nahi genuenez, maketa grabatu dugu.

— Zer moduz doa maketaren salmenta?

— Oraingoz oso ondo, asko saldu da.



— Maketak izan duen arrakastaren ondoren, LPa atzerik asmorik bai?

— Ez, oraingoz ez. Maketa honek jendeak taldea ezagutzeko eta kontzertuak emateko balio izaten badigu, nahikoa da guretzat. Maketa honen helburuak ez dira hain handiak, ez dugu beste munduko ezer egin nahi. Oraingoz, kontzertu pare bat emateko asmoa daukagu.

— Nork egiten ditu abestietako letrak?

— Taldekoa ez den lagun batek egiten dizkigu; Danel Goikoleak. Dena dela, maketako abesti baten letra Txemak egin du. Danel, bertsolaria izateaz gain, “Los Pichones” taldeko jarraitzaile handia da, beraz, oso letra onak egiten ditu.

— Zeri abesten diozue? Zeintzu dira zuen abestien

gaiak?

— Bere lagunek bizi izan dituzten istorioak idazten ditu Danelek, ez dakit... adibidez, maketako portada Angel Galipienzo marrazkilaria da eta Danelek “Tukan” abestia egin zuen harengan pentsatuz. Nire ustez, berak ikusi edo egunkarian irakurtzen dituen gauzei kantatzen die, hau da, bere letrak bera harrizten duten gauzei buruzkoak dira. “Zumaia” izeneko abestia ere egin du maketan. Zumaia Jabi Arizabaletaren alaba da; Jabi Los Pichones-ko lehen bokalista izan zen. Dena dela, Txemak, bokalistak, abesti baten letra egin du, “Zulakorik” abestiko letra hain zuzen.

— Zein da zuen musika estiloa?

— Nire ustez rock’n’rolla da. Gauza arraro

asko esan digute baina nik ez dut ezer sinisten, “Midnight Oil” taldearen antzeko musika egiten dugula entzun dut, baita Hertzainak taldearen antzeko musika dela ere ... baina ez da egia. Julek esaten duen moduan, “Los Pichones, Los Pichones dira: bakarrak eta originalak”.

— Denbora asko behar izan duzue maketa prestatzen?

— Ez. Entsaiazen ibili gara eta maketa bat grabatzeko asmotan genbiltzanez, 7 abesti hartu eta maketa grabatu genuen. Hilabete batean prestatu genuen dena eta bi astetan grabatu genuen maketa.

— Talderen baten eraginik jaso duzue?

— Ez, taldeko partaide guztioi ez zaigu musika bera gustatzen. Jakina, rock’n’rolla denoi gustatzen zaigu baina gusto desberdinak ditugu. Gainera, talde desberdinetatik etorri gara partaide guztiak: Jul RIPetik etorri zen eta ni “Los Albertos” taldean ibili naiz, pop musika egiten zuen taldetik; Iñakik fagota jotzen du Arrasate Musika-leko orkestran eta Schubert baino klasikoagoa da... beraz, imaginatu!

Oso influentzia ezberdinak ditugu denok. SS-77 taldekoek, oso soinu “pitxoia” dugula esaten dute!

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE



PEUGEOT

Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE



Patricia Esparza.



Virginia Esparza.

Esparza ahizpen kontzertua

Errege egunean, urtarrilaren 6an, arratsaldeko 7etan eta Amaia Antzokian, Virginia eta Patricia Esparzak bibolin eta txelo errezeitaldia eskainiko dute Arturo Goikoetxea pianojolearekin batera. Kontzertua ematearen ideia bi ahizpei bururatu zitzaizen eta antolaketa, Arrasate Musikalek hartu du beregain.

VIRGINIA ESPARZA

24 urteko gazte honek 10 urte zituela hartu zuen lehen aldiz bibolin bat eskuartearen Arrasate Musikalen. 1988an, UBI eta

selektibitatea egin ondoren, Bartzelonara joan zen bibolin ikasketak jarraituz: bi urtetan bibolineko erdi mailako titulua atera zuen kalifikazio onenekin. Gipuzkoako Diputazioak beka bat eman zionean, Utrecht-ko (Holanda) "Hogeschool voor de Kunsten" goi-mailako kontserbatorian sartzea lortu eta bertan jarraitu zituen ikasketak. Duela gutxi, Bartzelonako Liceo kontserbatorian, goi-mailako titulua atera du eta Alemaniako fundazio prestigiotsu batek Rotterdameko kontserbatorioan ikasteko beka garrantzitsu

bat eman dio. Gainera, datorren urtarrilean Holandako orkestra profesional batean jotzen hasiko da.

PATRICIA ESPARZA

21 urte ditu. 12 urterekin hasi zen txeloa ikasten eta 1988an Bartzelonara joan eta txeloko erdi mailako titulua lortu zuen kalifikazio onenekin. Gipuzkoako Diputazio Foralak beka bat eman zionean Holandara joan zen bere ahizpak ikasten zuen kontserbatorio berera eta Holandan, UBI eta selektibitateko ikasketak jarraitu zituen bere kasa. Holandan

urtebete egon ondoren, Arrasatera bueltatu zen UBI eta Selektibitateko azterketak egitera. Biak gainditu eta berriz ere Holandara joan zen. 4 urte daramatza bertan eta txeloko goi mailako titulua eskuratu berri du Iruñeako "Pablo Sarasate" kontserbatorian.

Bi ahizpak Holandako goi mailako titulua lortu nahi dute orain eta horretarako ari dira prestatzen. Hasierako urtean oso gogorak izan baziren ere, gaur egun Amsterdamen bizi dira eta guztiz integratuta daudela adierazi digute.

Arrasate Musikaleko Banda estreinatuko da zapatuan

"Gure ametsa bete da" esaten zuen J. R. Vitoriak, Arrasate Musikaleko zuzendariak, asteazkenean eman zuten prentsaurrekoan. Arrasaten duela 20 urte desagertu zen udal-banda baina orain, Arrasate Musikalek berria sortu du. Zapatuan estreinatuko da herriko plazan eguerdiko 1.30etan eta guztira, 70 musi-


karik hartuko dute parte: 60 bat musikari akademiakoak eta gainontzekoak, Gasteizko udal folklore akademiakoak eta Bergarako musika eskolakoak.

Eguerdiko 12.30etan Demetrio Iriarteren "Asierak" izeneko obrarekin kalejira eginez aterako da banda akademiatik eta herriko pla-

zara heltzen direnean, emanaldia eskainiko dute. Juan Arzamendi, Justo Munarriz, Pablo Sorozabal, Jose Teruel, M. Gainza eta Isidro Ansorenaren obrak joko dituzte.

Emanaldia hasi aurretik, Juanito Arzamendiri, Justo Munarriz-en alabari eta Demetrio Iriarteri, oroimen berezia egingo zaie.

J. R. Vitoriak adierazi zuenez, "herriak banda bat eskatzen zuen. Banda bat sortzeko gogoia zuen jendeak eta guk gogo hori bete nahi izan dugu". Bandaren zuzendaritza J. R. Vitoriak berak eramango du; haizezko instrumentuen ardura Alberto Urretxok eta perkusiozko instrumentuena, J. R. Elkorok.



Kontzeziño egunez Arbolapetan.

Kontzeziño eguna egun handia izaten zen garai baten Mondrauen eta lagun kuadrila honek egun seinalatu hori aprobetxatu zuen "erretatistie auela aprobetxate" egun hori gogoan hartzeko. 1918 urte ingurua izan behar

zuen. Meza ostean prozesioa izaten zen: Parrokiatik irten eta Erdiko Kalean behera, Arkuko Ama Birjina zegoen lekuraino. Musikoak ere izaten ziren egun horretan eta kuadrila honetan ere baziren bi; jaia amaitu eta gero Biterixeneko jardinetara joan ziren eta bertan ateratakoa da fotografia.

Zutik ezkerretik hasita,

Zabarte, Marzelino Olazabal "Orduña", Leandro Gorostiza, Fermin Martinez eta Mariano Leibar "Txanpon".

Lurrean ezkerretik, **Manuel Uriarte**, talde honetatik gaur egun bizi den bakarra. Mutikotan Arbolapetako zuhaitza landatu eta zaindu zuena bera izan zen. Bere alboan, **Garro "Pin-**

txe", argia kobratzen ibiltzen zenaren familiakoa, **Abarra-tegi "Botines"** eta **Jesus Sagasta**, Mojategitarra.

Zerrajera eta Kutxerixako langileak ziren denak. Egund hartan traje berria estreinatu zuela gogoratzen du Manuel Uriartek. Urtean birritan izaten zen hori: Kontzeziño egunean bata eta San Juan egunean bestea.

Lubia
Oinotakoak

**Gabon jai eta
urteberri
zoriontsuak
opa dizkizuegu**

AUKERA ZABALA ZURE KONFIDANTZAZKO DENDAN

Biteri, 1 ☎: 79 66 53
ARRASATE

Mitarte, 14 ☎: 79 16 00
ARETXABAETA

ARGI PLASTIC

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30

ZER NAHIAGO?

Juan Manuel Galilea "Informatica Alto Deba"koa

- Ordenadore marka bat? I. A. D.
- Asko jolasten duzu bideo-jokuekin? Ez, gutxitan jolasten dut.
- Ordenadore programa bat? "Corel Draw"
- Egunean zehar zenbat ordu ematen duzu ordenadorearen aurrean? Bi.
- Zer ekarri dizu Olentzerok? Gauza gutxi, ez naiz oso ondo portatu...
- Gabonak gustoko jaiak dituzu? Bai.
- Zer eskatzen diozu datorren urteari? Pasa berri dena bezain ona izatea.
- Nola definituko zenuke 1994a hitz bakar batez? "Urte bat gehiago".
- Opari asko erosi duzu? Ez, oso gutxi.
- Telefonoz hitzegin edo eskutitzak idatzi? Telefonoz hitzegin.
- Loteria tokatu zaizu? Ez, ezer ere ez.
- Zenbat diru jokatu duzu? 3000 pta.
- Sekretu asko duzu? Ez.
- Musika talde bat? Mike Oldfield.
- Lo daudenean hitzegiten duen horietarikoak zara zu? Normalean ez... ez dut uste behintzat!
- Ze koloretakoa da zure pijama? Urdina eta berdea.
- Zein janari prestatzen duzu ondoen? Bat bera ere ez: ez dut sukaldaritza "praktikatzen".
- Inguruko jatetxe onena? Ugaran.
- Kafe hutsa edo ebakia? Ez dut kaferik hartzen.
- Gustatuko litzaizuke elurra egitea? Bai, asko.
- Hartzen duzu infusiorik? Ez, ez zaizkit batere gustatzen.
- Karta joku bat? Musa, baina nahiko txarra naiz.
- Pelikula bat? "Bailando con lobos"
- Eskiatzera joateko asmorik? Ez.
- Zerk ematen dizu beldurra? Ez dakit... elkarriketa honek!



LABURRAK

"Gizaizpi Alai" kristau-taldearen aldizkaria

San Juan Bataiatzaile parrokiako "Gizaizpi Alai" astialdi taldeak, "Gabon Berri" izeneko aldizkaria atera du. Talde hau 40 bat gaztek eta 12 begiralek osatzen dute Jose Mari Astigarraga parrokoak adierazi digunez, euren asmoa, ahal dutenean behintzat, aldizkariari jarraipena ematea da.

Aldizkari horretan gabonei buruz herritarrei egindako hainbat inkesten emaitzak argitaratu ditu taldeak. Inkestetan, beste galdera batzuen artean, zera galdetzen da: Aparteko zer gauza egiten duzu Gabonetan? Zer jaten duzu gabonetan? Zer opari klase jasotzen duzu gabonetan? Inkesten emaitzak "helduak" eta "gazteak" ataletan bereiztu dituzte. Inkestez gain, "Gabonetako izpiritua" izeneko ipuina ere idatzi dute. Denborapasa atal bat ere erantsi diote aldizkariari eta azken orrialdeetan, gazteren batek "Gizaizpi Alai" taldean izena ematea nahi izango balu, nora jo behar duen argitzen zaio. "Gabon Berri" aldizkariak, parrokiako taldeetan banatu da.

ARKO-k Erredakzio-buru lanpostua bete behar du

BALDINTZAK:

- Kazetaritza eta herri komunikabideetan esperientzia.
- Euskara maila ona.
- Gidatzeko karneta.

BALORATUKO DENA:

- Arrasate ezagutzea.
- Harremanetarako gaitasuna.

LANPOSTUAREN BETE BEHARRAK:

- ARRASATE PRESS-eko zuzendaritza eta ARKO-ko medioen erredakzio buru.

KURRIKULUMAK:


EPEA: Urtarrilaren 12an.
Helbidea: Azoka kalea, 1
20.500 ARRASATE



• ESAERA ZAHARRA •


Gaizki egina laster azaldu, nahiz eta gaizkinak ondo estaldu.

• JEROGLIFIKOA •



Nork ekarri dizu oparia?

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Txus, saskibalo taldeko entrenatzailea. 8. Gizonezko gurasoa. 9. (Ald.) Oraindik ordaintzeko. 10. Tantaloa. 11. Gehiegi. 13. Aditzera eman. 16. Alkohol etilikoa. 17. Urruti. 19. Eguzkiaren jainko egiptiarra. 20. Joaten ari naiz. 21. Putzu.

Bertikalak 1. Elkartasun. 2. Saudi Arabiako hiriburua. 3. Idi hitz elkartuetan. 4. Zale bihurtu. 5. Esan. 6. Esnatu aurretik. 7. Azpijoko. 12. Nafarroako udala. 14. Emakume izena. 15. Zorte. 18. (Ald.) Txakur.

• HOROSKOPOA •

Aries Portatu zara, aurren behintzat etxeontzat opariak erosi dituzu.

Taurus Meltxor erregearen antz handia duzu. Zergatik ote?

Gemini Gorputza astintzea gustatzen zaizu baina hobe etxean dantzatzen baduzu.

Cancer Bihar bertan ustegabeko bat izango duzu. Trankil hartu.

Leo Janari guztiak erretzen zaizkizun arren, sukaldari ona zara.

Virgo Izarrek bezala, zuk ere dizdira egiten duzu.

Libra Aspaldiko lagun batekin egingo duzu topo baina ezagutuko ez duzunez, ez zara konturatuko.

Scorpio Ea urte berriaz zentzua ere etortzen zaizun. Falta galanta duzu.

Sagitaris Zergatik bizi zara triste? Animo eta barre egiten hasi.

Capricorn Hobe zinemara joaten ez bazara. Auskalo zein jartzen zaizun alboan.


Aquarius Baztertua sentitzen zarela? Normala, zure itxura horrekin...

Piscis Gauza bat segurua da: ekainerako etxebizitza aldatuko duzu.

TXIKILANDIA

95

GOIZEZ 11-14
ARATSALDEZ 16-20



95.eko
URTARRILAK
2,3,4 eta 5ean



• TELEBISTAREN TXOKOA •



Urte berri on, ikus-entzule!

Badator, badator 95a! Urte berriaren etorrera ospatzera goaz ARKOKo langileok, beraz, datorren astean ez gaituzu pantailan izango. Santamas eta Gabonetan jo ta ke lanean aritu ginenez, urtarrilean oporralditxo bat hartuko dugu. Bitartean, pilak kargatu eta presko-presko izango gara berriz zure etxean urtarrilaren 9an. Urte berri on!

• PROGRAMAZIOA •



Datorren astean ez da programaziorik izango. Urtarrilaren 9an berriz ere zuekin izango gara, ohiko programazioarekin. Ondo izan.

• KOMIKIA •



Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

• SOLUZIOAK •

Horizontalak: 1. Brzuela, 8. Aita, 9. Zor, 10. Ta, 11. Lar, 13. Adiera, 16. Eianol, 17. Urtun, 19. Ra, 20. Noa, 21. Osin.
Bertikalak: 1. Batasun, 2. Riad, 3. It, 4. Zaleu, 5. Erran, 6. Lo, 7. Azpilan, 12. Arano, 14. Iera, 15. Zori, 18. Or.
Jeroglifikoak: Osabak.

Etxebizitzak

- **Neska bat edo bi behar dira Arrasaten etxebizitza betetzeko.** Dei egin Gasteizko tfno honetara: 945-22 34 97. Edurne.
- **Neska behar da** Donostiako erdikaldean otsailetik ekainera etxebizitza osatzeko. 17.500 hilean. Tfnoa: 79 26 93.
- **"Pensión Ederra" alokagai Iturriotz kalean.** Tfnoa: 79 12 07. Arratsaldeko 8etatik aurrera.
- **Arrasaten etxebizitza osatzeko neska behar dugu.** Hilean 9.500 pta. Tfnoa: 79 70 77. Aintzane.
- **Etxebizitza behar dut alokagai.** 50.000 pta. arte ordaintzeko prest. Tfnoa: 79 44 96.
- **Etxea saltzen da,** Okendo 1 -5.A. Tfnoa: 79 94 36. Arratsaldez deitu.
- **Etxebizitza salgai, Uriburu kalean, 6 - 3.** Tfnoak: 79 80 66 / 77 14 14
- **Nesken etxebizitza batean logela bat alokatzen da,** oso merke. Tfnoa: 77 06 25. (Ainhoa).

Lana

- **Baxuzko klaseak** ematen ditut. Tfnoa: 79 78 65. (Aitor).
- **Haurrak zaintzeko** edo etxea garbitzeko andra euskalduna eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- **20 urteko gaztea** lan egiteko gertu. Tfnoa: 79 44 86.
- **Haurrak zaintzeko edo etxea egiteko** esperientziadun neska eskaintzen da. Esperientzia dut, eta informeak ere bai. Tfnoa: 79 76 27 (Maite). Dei egin goizeko 9etatik 11etara.

- **Haurrak zaintzeko edo etxea garbitzeko** esperientziadun neska eskaintzen da. Tfnoa 79 73 06 (Ana).
- **Emakumeak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 31 58.
- **Software neurria.** Ikastetxeak, akademiak, lanbide liberalak, PYMEak, komertzioak eta tabernak. Tfnoa: 79 54 87. Carlos
- **Gaixo edo/eta adineko pertsonak zaintzen ditut.** Tfnoa: 945-17 07 28. Bautis.
- **Edozein motatako lanak garbira pasatzen ditut ordenagailuz.** Interesatuok deitu 79 77 59 tfnora eta galdetu Fernandogatik.
- **23 urteko neska lan egiteko prest.** Tfnoa: 79 63 04. Beni.
- **Umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko** emakume euskalduna gertu. Tfnoa: 79 56 32. Txaro.
- **Jatetxean zerbitzari lan egingo nuke.** Tfnoa: 79 56 32. Txaro.
- **Neska euskaldun eta langilea eskaintzen da** astean zehar etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko. Deitu 76 62 60 tfnora eta galdetu Aloñagatik.
- **Etxeko garbitasunak egin, haurrak zaindu edo dendari lanak** egingo nituzke. Tfnoa: 79 91 30.
- **Magisteritzako ikasleak klase partikularrak ematen ditu.** OHOk maila guztiak. Dei egin 79 41 37 tfnora 9,30etatik aurrera.
- **Ingeleseko klase partikularrak ematen dira.** Profesionalitatea eta esperientzia zentro akademiakoan. Tfnoa: 79 28 98.
- **Neska eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 77 94. M^ñ Eugenia.
- **Ileapaindegiko laguntzailea eskaintzen da** FPII eta hobekuntzarekin. Tfnoa: 79 39 15.
- **Emakumea jatetxeteetan garbiketa lanak egin eta umeak zaintzeko prest.** Tfnoa: 79 63 27. Nati.

Salerosketak

- **"STARFORCE" kitarra salgai,** egoera onean eta merke. Harremanetarako dei egin 79 38 58 tfnora. Aitor.
- **Erlajiorako biozirkuitoak salgai.** 3.500 pta gehi igorpen gastuak. Tfnoa: 79 73 82. Informazioa nahi baduzu, bialdu sobrea eta 29 pta-ko zigilu bi helbide honetara: E. Gonzalez. Dr. Bañez, 15. 2. ezk.
- **R-14 markako kotxea salgai.** Matrikula SS-P. 95ean ITV atarata. Egoera onean. Interesatuok dei egin 79 58 82 tfnora. Mikel.
- **Garajea alokagai. Roneon.** Tfnoa: 79 19 64.
- **Garaje itxia alokatzen da Maala kalean.** Tfnoa: 79 42 13.
- **Sofa bat 3 plazatakoea eta bi siloi salgai.** Tfnoa: 79 11 24. (Mila).
- **FORD FIESTA 1.100 bat salgai.** SS-2213-AD. Beltza. Tfnoa: 76 46 80 (Dei egin arratsaldeko 8etatik aurrera).
- **"FAGHTER" bateria salgai,** chaston eta txapa erremikoko batekin. Ia erabili gabea eta merke. Interesatuok deitu 79 65 31 tfnora. (Gaizka).
- **Bigarren eskuko Mountain bikea salgai.** Tfnoa: 79 94 83.

Denetarik

- **Urrezko eraztuna galdu zitzaidan** abenduaren 13an Arrasaten. eraztunean "Nerea" dago idatzita. Aurkitzen baduzu, 79 42 70 tfnora deitu, mesedez.
- **Egunero Gasteiza joan beharra daukat goizeko 8etarako.** Nahi baduzu nirekin etorri (gaztuak erdibana) hor doa nire tfnoa: 79 80 91

Aste Gazte

Bekak

- Euskal Herriko unibertsitateko ikasleei zuzendutako garraio bekak, unibertsitatea joateko egunero 25 kilometrotik gora egin behar dutenentzat. Epea: urtarrilak 18.
- Kiroletako Ikerketa eta Zientzia Zentru Nazionalak deiturik hainbat beka 95 urterako. Eskatzaileak: ebakuntzan eta medikuntzan lizentziatuak, kimikan, farmazian, heziketa fisikoan, geografia eta historian, kazetaritzan eta filologian. Epea: urtarrilak 16.

Lana

- Udal ezberdinetan kalaturiko lan deialdiak. a) Bilbon: administrazio orokorreko zazpi teknikari; bibliotekari bat. Epea: urtarrilak 8. b) Erandion: heziketa fisikoan lizentziatu bat; administratibo bat; lau personal laguntzaile; mantenimendu ofizial bat. Epea: urtarrilak 5. d) Tuteran: psikologian lizentziatu bat; bi hezitzaile berezi. Epea: urtarrilak 11. e) Zaldibarren: Itzultzaile, bibliotekari eta euskara dinamizatzaile bat. Epea: urtarrilak 4.

Eski Kanpaina

- Eski Alpinoa, 15-29 urte bitartekoei zuzendua. Iharduera, eskialeku eta prezio ezberdinak. Erreserbak, Gazte Bulegoan.

Lehiaketak


- Kartel lehiaketak. 1) Arrasate 95 Haratuzteak. Neurriak 50 * 70. Epea: urtarrilak 13. 2) Bilbo 95 Ihauteriak. Neurria, teknika eta kolorea libre. Epea: urtarrilak 10.
- Pasaiaiko Udal Euskaltegiak antolatuturik, "I Ipuin lehiaketa". Ipuinak euskaraz idatzitak izan behar dira. Gaia librea. Epea: urtarrilak 13.

Gazte Bulegoa

- 94 urtea ondo bukatu eta 95a hobeto hasi. URTE BERRI ON GUZTIOI!

"Gazteek kokotearaino egon behar dute beraien bizitzetan horrenbeste huskeria direla eta".


**JON SOBRINO
(JESUITA, IRAKASLEA,
TEOLOGOA)
DEIAN**



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**



ZORIONAK ETA URTEBERRI ON



San Frantzisko Xabier

 KASTOLA

iKER
SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

ZURE AMETSA...

BAINU ERAKUSKETA | **SUKALDE ERAKUSKETA**
Zarugalde kalea, 52 | Udala Enparantza, z/g
ARRASATE | **ARRASATE**
Tfnoa: 79 99 42 | Tfnoa: 79 00 43

FAGOR

iKER
SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

BAINU ERAKUSKETA | **SUKALDE ERAKUSKETA**
Zarugalde kalea, 52 | Udala Enparantza, z/g
ARRASATE | **ARRASATE**
Tfnoa: 79 99 42 | Tfnoa: 79 00 43

FAGOR

Urte

BAINU ERAKUSKETA | **SUKALDE ERAKUSKETA**
Zarugalde kalea, 52 | Udala Enparantza, z/g
ARRASATE | **ARRASATE**
Tfnoa: 79 99 42 | Tfnoa: 79 00 43

FAGOR

74 metro karekubena **FAGOR** Modelo Batzuetan

BAINU ERAKUSKETA | **SUKALDE ERAKUSKETA**
Zarugalde kalea, 52 | Udala Enparantza, z/g
ARRASATE | **ARRASATE**
Tfnoa: 79 99 42 | Tfnoa: 79 00 43

FAGOR

oroan

zehar

zurekin

iKER
SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

BAINU ERAKUSKETA | **SUKALDE ERAKUSKETA**
Zarugalde kalea, 52 | Udala Enparantza, z/g
ARRASATE | **ARRASATE**
Tfnoa: 79 99 42 | Tfnoa: 79 00 43

FAGOR

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE
Tfnoa: 79 99 42

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g
ARRASATE
Tfnoa: 79 00 43

FAGOR